


# BIZIKLETAREN ERABILPENA SUSTATZEKO GIPUZKOAKO UDALEN ESPERIENTZIEN GAINEKO AZTERKETA

***Udal Kirol Politiken X. Topaketak***

Irunen, 2015eko martxoaren 26an

**Edorta Bergua**
**Gipuzkoako Foru Aldundia**

# BIZIKLETAREN EGOERA GIPUZKOAKO UDALERRIETAN

Bizikleta mugikortasunaren esparruan Gipuzkoako udalerriek duten **interesa** eta **inplikazioa** geroz eta handiagoa da.

**Gakoak**:

- Erabilerak izan duen gorakada
- Herritarren aldarrikapenak
- Erakundeek duten sentsibilitatea

**Erabilpena txikia baina gorantz doa**:

- 2007an joan-etorri guztien %1,3 bizikletan / 2011n %2,4
- Udalen %80k uste dute bizikleta gaur egun orain dela 10 urte baino gehiago erabiltzen dela.
- 14 urtetik gorakoen %36 gutxienez hilean behin bizikleta erabiltzen dute (%7ek egunero)

# BIZIKLETAREN POTENTZIALTASUNA GIPUZKOAN

- Herritarren %88k badakite bizikletan ibiltzen.

- Eguneroko joan-etorrien %63a udalerri barruan egiten dira.

- Etxeen %63an badago nagusientzako bizikletaren bat (batez beste 1,4 bizikleta etxeko).

- %73 ados udalerrian trafikoaren abiadura eta automobilen bolumena murrizteko ekintzak aurrera eramatearekin.

- %79 ados Gipuzkoan bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzeko baliabide publiko gehiago bideratzearekin.

# BIZIKLETARAKO AZPIEGITURAK ETA PLANAK GIPUZKOAN




Udal asko oso aktiboak dira bizikleta erabiltzeko baldintza egokiak sortzen

# BIZIKLETA AZPIEGITURAK

- Bi herenetan bidegorriak edo aparkalekuak daude.
- %40k hiriko bizikleta-bideren bat dute; %52k hiriarteko bizikleta-bideren bat; eta %31k biak.
- Udalen bizikleta-bideen sarea: **179 km**.
- Foru sarea: **113 km**.
- Udalerrien %50k bizikleta **aparkaleku**ren bat dute (12.500 toki).
- **Tolosaldean** eta **Goierrin** eskualde-buruek dute batik bat bizikleta-bideen azpiegituraren bat.
- **Urola**ko eskualdean ia hirigune guztiek dute bizikleta-bideen azpiegituraren bat.
- **Debabarren**eko hirigune gehienetan ez dago bizikleta-bideen azpiegiturarik.
- **Debagoienan**, hiriguneen erdiak badute azpiegituraren bat.



# BIZIKLETARAKO PLANAK ETA HIRIGINTZA

- Udalerrien %31k bizikletaren erabilera sustatzeko planen bat dauka (Hiriko Mugikortasun Iraunkorreko Plana, Bizikleta Plana…).
- Debabarreneko udalerrietan plangintza espezifikorik ez dagoela nabarmentzen da.
- Udalerrien %40k sartzen dute beren hirigintza-planteamenduetan hiriko bizikleta-azpiegituraren bat.



# BIZIKLETARAKO PLANAK ETA HIRIGINTZA

Zenbait kasutan (Donostian, Hernanin, Legazpin) etxebizitza berrietan eta merkatal- eta industria eremuetan exijitzen da bizikleta aparkaleku ratio jakin batzuk jartzea.

## BIZIKLETA HIRIGINTZA PLANGINTZAN

Hernaniko Udala

### ERAIKUNTZA ORDENANTZA (GAO 116.zk)

**I.2-7.2 art. Aparkalekuetarako xedatutako lokalek baldintzak.**

A. Kokapena eta sarbidea.

Horretarako xedatutako lokal edo espazioen kokapena garraio mota honek berezkoak dituen ibilerraztasun- eta segurtasun-irizpideak kontuan izanik erabakiko da.

Ahal den neurrian, behe-solairuan kokatuta egon beharko dute. Nolanahi ere, 5. apartatu honetako gainerako zehaztapenak beteko direla bermatuta baldin badago, alternatiboki etxebizitza-eraikinen sestrapeko lehen solairuan kokatu daitezela baimenduko da, edo horien kanpoaldean, jabetza eta erabilera pribatuko lursailen bat dutenean.

Bizikletentzako aparkaleku-espazioaren sarbideak kanpoaldetik ahalik eta zuzenena izan behar du eta bere ezaugarriek (trazaketa, luzera eta ibilbidearen profila) ibilgailu ez-motordunei dagozkien ibilerraztasun, iragaite eta maniobrarako baldintzak beteko dituzte.

Aparkaleku hori barruti itxi baten barnean kokatzen denean, bertara sartzeko atearen orriaren gutxieneko neurriak zabalean 90 cm eta altueran 2,00 m izango dira.

### ORDENANZA DE EDIFICACION (BOG nº 116)

**Art. I.2-7.2 Condiciones de los locales destinados a aparcamiento**

A. Emplazamiento y acceso.

La ubicación de los locales o espacios destinados a este se adoptará atendiendo a criterios de accesibilidad y seguridad propios de este medio de transporte.

Preferentemente deberán quedar emplazados en planta baja. No obstante, siempre que quede garantizado el cumplimiento del resto de las determinaciones del presente apartado 5, se autoriza su ubicación alternativa en la primera planta bajo rasante de las edificaciones residenciales, o en el exterior de las mismas, cuando éstas cuenten con terreno de propiedad y uso privado.

El acceso al espacio de aparcamiento de bicicletas habrá de ser lo más directo posible desde el exterior y sus características (trazado, longitud y perfil del recorrido) estarán adecuadas a las condiciones de accesibilidad, paso y maniobra correspondientes a vehículos no motorizados.

Cuando este aparcamiento se ubique en un recinto cerrado, la hoja de la puerta de acceso al mismo tendrá unas dimensiones mínimas de 90cm de anchura y de 2,00 m de altura.

## BIZIKLETARAKO PLANAK ETA HIRIGINTZA

**Tolosako Udalak** bertako Alde Zaharrean egokitu duen utzitako patio bat bizikleta aparkaleku bihurtzeko ekimena, eta **Hernaniko Udalak** institutuan jarritako bizikleta aparkaleku babestuak.



# BIZIKLETAREN SUSTAPENA

- Azpiegiturazkoak ez diren alderdiei (heziketa, informazioa, sustapena, ikerketa, araudia) gutxiegi erreparatzen zaie oraindik.

- Udalerrien %40k egiten dute bizikletaren erabilera sustatzeko ekintzaren bat.

- Ekintzarik nagusienak:
  - Ikastaroak
  - Eskolara joateko bizikletaren erabilera sustatzeko kanpainak
  - 2. eskuko bizikleten azokak





# BIZIKLETAREN SUSTAPENA

Zenbait udaletan udaltzaingoek **bide heziketa** eta bizikleta- eta oinezko-mugikortasuna ikasleen artean sustatzeko ikastaroak antolatzen dituzte (Donostian, Hernanin, Zarautzen).

Debagoienan 2014an Aretxabaleta, Arrasate, Eskoriatza eta Oñatiko udalek, Aldundiarekin batera **lanera oinez eta bizikletan joateko** ekimena abian jarri zuten.



## BIZIKLETAREN SUSTAPENA

**Bizikleta publikoen zerbitzuak** daude Donostian eta Elgoibar. Zumaian ere abian jarri zena gaur egun itxita dago.




Bizikleten **lapurketen aurka** borrokatzeko asmoz Pasaian eta Donostian bizikleten erregistroak zabaldu dira.

Irungo Udalak Bidasoko Interpretazio Gunean **EuroVelo** sareari buruzko informazio gunea ireki du, Europako bakarra.



EuroVelo
the European cycle route network



# UDALENTZAKO FORU DIRU LAGUNTZAK

Bizikleta-bideen sareen proiektuak eta obrak egiteko (250.000 euro urtean)

Bizikleta garraiobide moduan bultzatzeko sustapen jarduerak antolatzeko (25.000 euro urtean).



# BUKATZEKO

1. Udalerrien interesa eta inplikazioa geroz eta handiagoa da.
2. Bizikletan ibiltzeko baldintzak gero eta hobeagoak dira.
3. Erabilerak gora egiten du etengabe.
4. Potentzialtasun handia dauka oraindik.
5. Bizikletaren aldeko udal politiken hasierako fasean baino ez gara Gipuzkoan. Ez da harritzekoa akatsak egitea.
6. Azpiegituren garaitik planteamendu osoago baterantz: zerbitzuak, komunikazioa eta gobernantza uztartuz.
7. Eraginkorrak izateko ezinbestekoa da mugikortasun jasangarrirako planteamendu zabal batean kokatzea.
8. Bizikletaren aldeko ekimenen eragina txikia izango da, aldi berean autoak eta motorrak erabiltzeko eskaintzen diren erraztasunen aurkako neurriak hartu ezean.







**Mila esker zuen arretagatik!**

**http://www.gipuzkoabizikletaz.eus**
**bizikleta@gipuzkoa.eus**
**@BizikletazGpkoa**